

1. EMAKUMEAK GERRAREN AURKA:

Munduaren luze-zabalean gerra, desberdinkeria eta askotariko indarkeriak nagusi diren testuinguru bete-betean iritsi gara beste urte batez martxoaren 8ra, eta urtero bezala, Euskal Herriko Mugimendu Feministako kideok arrazoiak soberan ditugu kalera ateratzeko. Gure herri eta auzoetan ere lurreratzen baitira indarkeria horiek guztiak.

Gerraren Aurkako Emakumeok militarismorik gabeko beste mundu baten alde borrokatzen dugu, produkzio militarretik askea den Euskal Herri baten alde.

Gerra hemen hasten dela salatzen dugu, Eusko Jaurlaritza bezalako erakundeek diru publikoz dopatutako eta banku armatuek finantzatutako 200 euskal enpresa baino gehiagotan: BBVA, Santander, Caixabank... Milioiak inbertitzen dituzte armadetan eta makineria militarrean, bizitzarako, hezkuntzarako, osasunerako eta zaintzarako funtsezko baliabideak murrizten dituzten bitartean.

Feminista antimilitarista garen aldetik, baliabide horiek zaintzeko inbertitzera bideratzea eskatzen dugu, babes-sareak, justizia soziala eta erresistentzia komunitarioa indartuz, eta menderatze-sistemen aurrean erresistentzia kolektiborako deia eginez.

2. EGINAREN EGINEZ:

Las mujeres con diversidad funcional afirmamos que otro mundo será posible cuando nuestras vidas y voces cuenten de verdad. Un mundo que derribe barreras físicas, sociales y simbólicas. Reinvidicamos, autonomía y participación plena, sin paternalismo ni invisibilidad.

Nuestro feminismo también se construye con accesibilidad y justicia. Porque cuando todas seamos reconocidas como mujeres y cuando nadie quede fuera, el cambio será real.

3. PENTSIONISTAK:

A las mujeres pensionistas nos interpela y nos representa la consigna de este 8M: FRENTE A LOS SISTEMAS DE DOMINACIÓN : LUCHA Y ORGANIZACIÓN FEMINISTA.

Sabemos bien de qué hablamos. Hemos vivido bajo un régimen autoritario brutal y conocemos en primera persona lo que significan el miedo, la falta de libertades y los derechos negados.

Hoy seguimos denunciando:

- que miles de mujeres pensionistas cobran pensiones de miseria, muy inferiores al SMI.
- La negativa del Parlamento Vasco, con los votos del PNV, el PSE y VOX, a debatir ni siquiera nuestras propuestas de complementar las pensiones mínimas con el SMI, avaladas por mas de 145.000 firmas. 145.000 firmas llenas de dignidad que no dejaremos que queden en el olvido.

4. SETEM:

Setem Hego Haizetik, feminismoetatik eraikitzen den mundu baten alde borrokatzen dugu. Desberdintasunei eusten dieten menderatze-sistemen aurrean, bizitza erdigunean jartzeko antolaketa kolektiboa aldarrikatzen dugu.

Emakumeen eta lurraldeen esplotazioa betikotzen duten ekoizpen-kate globalak zalantzan jarri behar ditugu, eta, ikuspegi feministatik, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen aldeko apustua egin behar dugu. Kontsumitzen ditugun produktuak nondik datozen, zein lan-baldintzatan egin diren eta ingurumenean zer eragin duten galdetu behar dugu.

Honek merkatua zeharkatzen duten genero-estereotipoei aurre egitea eta pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituzten ekoizpen- eta bidezko merkataritza-ereduak sustatzea esan nahi du.

Beste mundu bat soilik posible izango da feminista bada eta justizia sozialetik, interdependentzietatik, erantzunkidetasunetik eta bizitzaren zaintzatik eraikitzen bada.

5. INTERVENCIÓN SOCIAL:

Desde el sector de intervención social denunciemos el lavado de cara institucional cada 8 de marzo. Mientras se colocan pines morados y posan para la foto en nombre de la igualdad, continúan precarizando los sectores feminizados que sostienen la vida y los cuidados. No aceptamos discursos vacíos ni gestos simbólicos que no se traduzcan en derechos. Exigimos un convenio digno para el sector, con condiciones laborales justas, estabilidad y reconocimiento real al trabajo que realizamos. Por ello, reivindicamos un sistema público de cuidados y la equiparación con las condiciones de la administración. La igualdad no se demuestra con gestos simbólicos: se garantiza con políticas públicas y recursos.

6. HAZTEN - SORTULEKU

Hoy, 8 de marzo, las trabajadoras de Hazten y Sortuleku salimos a la calle no solo para reivindicar igualdad, sino para denunciar el abandono institucional que sufren estos recursos, que sostienen la vida de mujeres, menores y familias en situación de vulnerabilidad. Nuestra lucha es feminista porque defiende cuidados dignos, servicios públicos de calidad y condiciones laborales justas. Exigimos a la administración responsabilidad, escucha y compromisos reales que garanticen derechos, estabilidad y protección para todas. Pedimos la subrogación de las trabajadoras de Sortuleku en el proyecto que les corresponde y ampliar la red de acogimiento de menores sin reducir recursos. Las trabajadoras de Hazten y Sortuleku vamos a seguir plantadas, pero en pie.

7. LUMAGORRI:

Lumagorri HATtik beste behin erregimen zishetero patriarkala salatu behar dugu. Zishetero arauak ez ditu soilik harremanak edo identitateak antolatzen, zeintzuk diren onak, sakratuak eta onargarriak arautuz; horrez gain, ekonomia, zaintzak, politika, medikuntza eta, azken batean, gizarte-egitura osoa ere antolatzen da erregimen zisheteroaren eta familia edo estatua bezalako erakunde zisheteroen zerbitzura. Gure gorputzak gaizki tratatzen eta esplotatzen ditu, bereziki gorputz arrazializatuak, migratuak, diskak, eroak eta bazterretan kokatzen dituenak. Azken batean edozein eskubide edo duintasuna kentzen digun erregimena da zishetero araua eta horren aurrean, etorkizun feministak eta bizigarriak eraiki nahi ditugu.

8. ATHCA:

¡Basta ya! al acoso laboral, a la opresión, al machismo y al racismo!

Debemos sensibilizarnos y denunciar para erradicar la violencia que se ejerce contra las mujeres, en el ámbito del cuidado. Es importante expresar que no somos cosas, que somos personas y que exigimos respeto. ¡Basta al abuso verbal y emocional que es injusto , porque son agresivos, ofensivos, vengativos, insultantes y racistas! ¡Queremos espacios seguros donde no tener miedo y sentirnos protegidas! Hay que denunciar la falta de inspeccion laboral ante el abuso, el acoso y la violencia sexual, ya que no se nada ante esta situación en la que viven Mujeres trabajadoras de Hogar y de cuidados. ¡Sin cuidados no hay vida!

9. BILGUNE FEMINISTA:

Guk hori guztia iraultzeko eta Euskal Herria Feminista eraikitzeko proposamen politiko bat dugu, eta Burujabetza Feministaren baitan ardazten dugu. Gorputz burujabez osatutako lurralde burujabea izateko. Desberdinkeriekin eta askotariko indarkeria eta zapalkuntzekin amaituko duten baldintza materialak eskuratzeko tresna dugu Burujabetza Feminista. Herri gisa menpeko izatetik deslotzeko eta menpeko gorputzak sortzeari uzteko.

Sistemaren egiturek noraezera eraman nahi gaituzte, baina guk geure burua etengabe berrasmatzen dihardugu eta argi dugu norabidea. Eraldatu nahi dugun guztia irauliz, asmatzen ari gara, herria eraikitzen asmatzen ari gara. Bere lur, hizkuntza eta gorputz.

Segi dezagun eraikitzeko iraultzen.

10. GMF

Egon gara martxoaren 8an beste mundu bat feminismotik aldarrikatzen. Egon ginen martxoaren 3an beste memoria bat feminismotik aldarrikatzen. Egongo gara martxoaren 17ko greba orokorrean prekarizatuenak diren subjektuen aldarrikapenak mahai gainean jartzen. Egongo gara martxoaren 21ean arrazakeriaren aurka borrokan. Egongo gara martxoaren 27an euskararen alde Korrikan. Egongo gara martxoaren 30ean etxeke eta zaintza langileen eskubideak aldarrikatzen eta zaintza sistema publiko eta komunitariorako aldarriak erdigunera ekartzen. Egongo gara martxoaren 31n transikusgarritasuna aldarrikatzen.

Estamos luchando desde movimientos muy diversos, pero nosotras tenemos claro que no queremos un movimiento sin feminismo ni antirracismo, ni mundos tampoco. Por eso queremos OTRO MUNDO DESDE EL FEMINISMO. Y la organización y la lucha para conseguirlo son nuestras armas más fuertes. ¡Mujeres*, trans y bolleras estamos dispuestas a tomar las calles!

Eraiki ditzagun aliantzak, nork bere lekutik. Elkarrekin nahiz subalternitate propioetatik. Eraiki ditzagun sare sendoak. Askotariko zapalkuntzen bitartez sostengatzen den sistema honi erantzun diezaiozun askotariko gorputz eta borroketatik. Antolatzen jarraituko dugu herriz herri eta auzoz auzo; asanbladetan, lantokietan, ikastetxeetan, gaztetxeetan, kaleetan... Aurrean izango gaituzue!

GORA BORROKA FEMINISTA!